



Berri pozgarria gizenentzat

Argaltzeko pilula perfektua bidean da. Frantziako eta Estatu Batuetako ikertzaile batzuek, behintzat, aurkikuntza handia egin dute obesitatearen aurkako lehiari. Gantzak erretzeko erritmoa neurtzen duen proteina aurkitu dutela diote zientzilariek. Obesitatearen inguruan eginiko azkeneko ikerketek jangura erregulatzen duten hormonien bidetik jotzen zuten, baina aurkikuntza berri hau guztiz bestelakoa dela esan daiteke.

Zelulek energia erretzearen edo gantz bihurtzearen erritmoa erregulatzeko erretetan zehar biologoak erregulazio hori nola egiten den aztertzen aritu dira. Arratoiekin eginiko esperimentu batzuen ondoren, ikertzaileek UCP2 (askatutako proteina-2) proteina gizentzearen arduradun garrantzitsua dela



Dengue izurriteak iraun zuen garaian odol-transfusioak jaso zituzten gaixo batzuegan B eta C hepatitis-mota larriak detektatu dira Indian. Herri txiroen patu malapartatua ote?

jakin dute. Ikerketaren buru den Craig Warden estatubatuarrak dioenez, UCP2 proteinaren maila igotakoan gantzak askoz bizkorrago erretzen dira. Behin-betiko ondorioak ateratzeko goiz da oraindik, baina baliteke etorkizunean gizenen kopurua dezente jaistea.

Hepatitisaren kutsadura Indian

Iaz, 10.000 pertsona inguru egon ziren Delhin dengue gaixotasunak jota. Hauetatik 400 baino gehiago hil ziren, ustez sukarraren ondorioz. Izurri hark bere kalte guztia egin zuela pentsatzen zen, baina ikertzaile batzuk beste ondorio batzuetara iritsi dira. Dengue izurriteak iraun zuen garaian odol-transfusioak jaso zituzten gaixo batzuek hepatitis dute orain. Adituek diotenez, odol-transfusioen erruz agertu diren hepatitis-kasuak gutxi dira. Hala ere, B eta C hepatitis-mota larriak detektatu dira gaixo batzuegan eta oso


zaila da zenbat indiarrek odola jaso duten jakitea. Gaur egun, Indiako odol-banku gehienetan ez da aztertzen odolak C motako hepatitis daraman edo ez, analisia egitea oso garestia baita. B motako hepatitisari dagokionez, odol-bankuetako heren batean bakarrik egiten da analisia. Ondorioz, gaixotasun hau kutsatzeko aukerak ugari dira.

Parasitoak eta eboluzioa

Orain dela ehundaka milioi urte jandako gai batzuk medio, *Apicomplexa* familia-ko zenbait kide desagertu egin daitezke. Aipatutako familia horretakoak dira, besteak beste, paludismoaren eta toxoplasmosiaren agenteak eta apikoplasto izeneko organulu misteriotsuak dituzte. Delako organulu misterioak dituzte. Kloroplasto-adierazpeneko geneak dituzte, baina iharduera fotosintetikorik ez dute. Parasitoak nola eduki dezake landareen mun-

duko arrotza bere etxean? Lau mintzez inguratutako ADN zirkularra duten apikoplastoak, alga berdearen "endosimbiosi sekundario" prozesu baten bidez lortuko zituzten. Bestela esan, parasitoen alga berderen bat "irentsi" zuten eta eboluzio mekanismo ezagun baten bidez honen ere bakterio fotosintetikoak zuten irentsia eta horregatik du makineria fotosintetikoak.

Ikertzaileek lehendik hipotesiak plazaratuak zituzten ADN honen kopapenaz eta ustekabeko



Paludismoaren *Plasmodium falciparum* agentea, moskitoan.

arrotzaren jatorriaz. Bere gene baten sekuentzia bat aztertuta, analisi filogenetikoak jatorriz begetala dela eman du aditzera. Organismo honen zeregina misterioa argitu gabe dago oraindik baina baliteke fenomeno hau terapeutikan erabiltzea. Izan ere, apikoplastoak antibiotikoentzat itua izan daitezke eta hauen parasito kaltegarriak tratatzeko modua ere bai.



Arratoiekin eginiko esperimentu batzuen ondoren, ikertzaileek UCP2 proteina gizentzearen arduradun garrantzitsua dela jakin dute. Konponbiderako lehen urratsa, inondik ere.

